



*aurretik*  
2010

**BIZKAIKO  
TEKNOLOGI  
BERRIKUNTZAREN  
INKESTA**

*Hau txosten zabalago baten  
laburpena baino ez da, web  
honetan eskura daitekeena.*

**ENCUESTA DE  
INNOVACIÓN  
TECNOLOGICA DE  
BIZKAIA**

versión reducida de un  
informe más amplio  
disponible en:

[www.barrixe.com](http://www.barrixe.com)

# Metodologia

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 2006-2008 aldiak jasotzen dituen Teknologi Berrikuntzaren 2008ko Inkesta egin zuen. Txosten hau egiteko Inkestan jasotako Bizkaiko datuen taula aztertu eta landu da. BARRIXE-BIZKAIKO BERRIKUNTZA BEHATOKIAK berriaz eskatu dio Eustati informazio hau txosten honetarako.

## Bizkaiko enpresa\* berritzailearen erradiografia

	2006	2007	2008
Enpresa berritzaileak Empresas innovadoras	30,5%	29,9%	29,4%
Jarduera berritzaileak burutzen dituzten enpresak Empresas con actividades innovadoras	32,1%	32,6%	32,6%
Produktu berritzaileak sortu dituzten enpresak Empresas que han introducido productos innovadores	14,6%	12,9%	13,7%
Enpresarako produktu berrien negozio-zifraen ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa	20,0%	21,4%	26,3%
Merkaturako produktu berrien negozio-zifraen ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado	7,3%	9,3%	10,9%
Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak Empresas que han introducido procesos innovadores	26,6%	24,5%	26,4%
Berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak Empresas que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación	45,4%	50,3%	45,3%
I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzten establezimenduak Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación	27,1%	25,3%	24,6%
Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte Han encontrado dificultades para realizar innovaciones	63,9%	60,3%	64,5%
Patenteak eta bestelako babes metodoak darabiltzate Uso de patentes y otros métodos de protección	22,4%	23,8%	25,2%
Bestelako aldaketak edo hobekuntzak egin dituzte estrategian eta antolakuntzan Han realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas	25,9%	22,6%	28,4%

\*10 langile edo gehiagokoak

(1) adierazlea aldi hauei dagokie hurrenez hurren:  
2006-2008, 2005-2007 eta 2004-2006

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %32,6k berrikuntzak egin dituzte (esamolde honen barruan sartzen dira bidean diren berrikuntza jarduerak, bai eta huts egiteagatik merkaturatu ez direnak). Portzentaje hori 2007koaren berdina da.

# Metodología

El Instituto Vasco de Estadística (Eustat) realizó la Encuesta de Innovación Tecnológica 2008 que abarca los años 2006 a 2008. El presente informe se basa en el análisis y explotación de las tablas de datos para Bizkaia de dicha Encuesta, la información ha sido obtenida ad-hoc para barrixe, el Observatorio de Innovación de Bizkaia.

## Radiografía de la empresa\* innovadora de Bizkaia

	2006	2007	2008
Enpresa berritzaileak Empresas innovadoras	30,5%	29,9%	29,4%
Jarduera berritzaileak burutzen dituzten enpresak Empresas con actividades innovadoras	32,1%	32,6%	32,6%
Produktu berritzaileak sortu dituzten enpresak Empresas que han introducido productos innovadores	14,6%	12,9%	13,7%
Enpresarako produktu berrien negozio-zifraen ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa	20,0%	21,4%	26,3%
Merkaturako produktu berrien negozio-zifraen ehunekoa Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado	7,3%	9,3%	10,9%
Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak Empresas que han introducido procesos innovadores	26,6%	24,5%	26,4%
Berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak Empresas que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación	45,4%	50,3%	45,3%
I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzten establezimenduak Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación	27,1%	25,3%	24,6%
Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte Han encontrado dificultades para realizar innovaciones	63,9%	60,3%	64,5%
Patenteak eta bestelako babes metodoak darabiltzate Uso de patentes y otros métodos de protección	22,4%	23,8%	25,2%
Bestelako aldaketak edo hobekuntzak egin dituzte estrategian eta antolakuntzan Han realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas	25,9%	22,6%	28,4%

\*con 10 ó más trabajadores/as/as

(1) el indicador corresponde sucesivamente al período:  
2006-2008, 2005-2007 y 2004-2006

Un 32,6% de las empresas de 10 ó más trabajadores de Bizkaia hace innovación, (dicha acepción recoge también las actividades sobre innovación que están en curso y las que han resultado fallidas y, por consiguiente, no han salido al mercado) este porcentaje es idéntico al de 2007.


# Teknologi

## berrikuntzarako jarduerak

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %28,8k teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte 2008. urtean, hau da, 2007an baino ehuneko 1,6 puntu gehiago.

### TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK



(1) patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea

(2) berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak

(3) beste atal batzuetan sartzen ez diren berrikuntzak inplementatzeko prestaketak.

10 langile edo gehiagoko industri establezimenduen %33,8k eta zerbitzu establezimenduen %29,7k hainbat jarduera burutu dituzte 2008an teknologi berrikuntzak lortzeko.

Tamainak badu eragina berrikuntzan, izan ere, berrikuntza gutxien sortzen dituzten enpresak 10 eta 19 langile bitartekoak dira.


# Actividades para

## la innovación tecnológica

Las actividades para la innovación tecnológica son el conjunto de trabajos científicos, tecnológicos, organizativos, financieros y comerciales, incluyendo la inversión en nuevos conocimientos, que conducen o pretenden conducir a la realización de productos o procesos tecnológicamente nuevos o mejorados.

Un 28,8% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados ha realizado en 2008 actividades relacionadas con la innovación tecnológica, un porcentaje 1,6 puntos porcentuales superior al de 2007.

### ACTIVIDADES PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



(1) compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.

(2) actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones

(3) preparativos para realizar la implementación real de las innovaciones no comprendidos en otros apartados

Un 33,8% de los establecimientos industriales y un 29,7% de los de servicios de 10 ó más empleados han llevado a cabo diversas actividades en 2008 con la finalidad de obtener innovaciones tecnológicas.

El tamaño es un factor que influye en la innovación, así, las empresas de entre 10 y 19 trabajadores son las que menos innovan.

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresa berritzaileen ehunekoa %29,4koa izan da 2008an, hau da, aurreko urtean baino 0,5 puntu baxuagoa.


Zerbitzuen sektorean, are handiagoa da 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen kopurua, alegia, %32,3koa (2007ko kopurua baino 1,2 puntu handiagoa). Industriaren sektorean, bestalde, atzerakada txiki bat eman da baina halere batez besteko orokorraren ginetik kokatu da, %30,9an. Aitzitik, eraikuntzaren sektoreko 10 langile edo gehiagoko enpresen egoerak nabarmen egin du okerrera 2007ko datuekin alderatuta (%19,1etik %13ra).

El porcentaje de empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados innovadoras de Bizkaia en producto y/o proceso en 2008 alcanza un 29,4%, un porcentaje inferior en 0,5 puntos al correspondiente a un año antes.

El porcentaje de empresas de 10 ó más empleados del sector de servicios es todavía más elevado, alcanzando una tasa del 32,3% (1,2 puntos superior a la cifra de 2007). El sector industrial, por su parte, presenta un ligero retroceso aunque se sitúa también por encima de la media general con un 30,9%. Por el contrario, las empresas del sector de la construcción de 10 o más empleados empeoran apreciablemente su situación con relación al año 2007 (13% frente a un 19,1%).

## ESTABLEZIMENDU BERRITZAILEAK JARDUERA ADARREN ARABERA

## ESTABLECIMIENTOS INNOVADORES POR RAMA DE ACTIVIDAD



Enpresaren tamainak badu eragina berrikuntzarako gaitasunean, hartara, bi segmentu nabarmen desberdin agertzen zaizkigu, alde batetik, 10 eta 19 langile bitarteko enpresetan berrikuntza tasak ez dira batez bestekora iristen, eta bestetik, 50 langile eta gehiago dituzten Bizkaiko enpresen %40k baino gehiagok berrikuntzak sortzen dituzte produktuan edota prozesuan.

El tamaño de empresa influye en la capacidad de innovación, así, observamos que se producen dos segmentos claramente diferenciados, por un lado, las empresas de 10 a 19 trabajadores con tasas de innovación que no alcanzan la media general, y por otro, las de 50 ó más, en este segundo grupo más de un 40% de las empresas de Bizkaia innova en producto y/o proceso.

## Nork garatu ditu produktu horiek?

Produktu/zerbitzu berrikuntza gehienak enpresetan bertan garatzen dira (%44,2) eta alternatiba horrek gainera indarra hartu du 2008. urtean, nahiz eta igoera 0,6 puntukoa baino ez den izan. Bestalde, beste enpresa edo erakunde batzuetan eginiko produktu/prozesu berrikuntzak indarra galdu du (%15,8tik %11ra). 2006-2008 aldian protagonismoa hartu du enpresako beste establezimendu batzuekin (%19,4) eta beste enpresa batzuekin (%25,3) lankidetzan egiten den produktu berrikuntzak; portzentaje horiek hazi egin dira aurreko urtearekiko, aurreko urtekoak %17,5 eta %23,2koak baitziren.

## ¿Quién ha desarrollado estos productos?

La mayor parte de las innovaciones de producto/servicio se desarrollan en las propias empresas (44,2%), alternativa que además ha cobrado fuerza en 2008, aunque con un ligero aumento de 0,6 puntos, perdiendo fuerza la las innovaciones de producto/servicio en otras empresas o instituciones (11% frente a 15,8%)%. En el periodo 2006-2008 cobra también protagonismo la innovación de producto realizada en cooperación con otros establecimientos de la empresa (19,4%) y en cooperación con otras empresas (25,3%), dichos porcentajes han aumentado con relación a un año antes cuando se situaban en un 17,5% y 23,2%, respectivamente.

10 langile edo gehiagoko industri enpresen bi herenek (%65,5) barnean garatu zituzten produktu edo zerbitzu berrikuntzak 2006-2008 aldian. Portzentaje hori 1,6 puntu hazi da aurreko urtearekin alderatuta. Zerbitzuen sektorean, establezimenduan bertan eginiko produktu berrien garapenak pisu handia badu ere (%31,1), nagusi da beste enpresa batzuekin lankidetzan eginikoa (%33,7) eta gainera portzentaje hori hazi egin da 2007koarekiko. Eraikuntzaren sektorean establezimenduan bertan gauzatzen da produktu berrien garapena.

20 eta 49 langile bitarteko enpresak dira produktu berrikuntzak barnean gehien garatzen dituztenak (%52,9). Enpresa txikiak (10 eta 19 langile bitartekoak) dira kanpoko baliabideak (beste enpresa edo erakundeak) gehien erabiltzen dituztenak produktua berritzeko (%22,4) eta handienak dira beste enpresa batzuekin gutxien kolaboratzen dutenak produktua berritzeko (%18,3).

## Nork garatu ditu prozesu horiek?

Kasu honetan, hiru aukerak (establezimenduan bertan, beste enpresa edo erakunde batzuetan eta beste enpresa batzuekin lankidetzan) antzeko portzentajeak daukate, %28-29 ingurukoak. Egoera hori asko aldatu da 2007ko emaitzekiko, izan ere orduan enpresen %41,3k lehen aukera hautatu baitzuten prozesuak garatzeko.

Prozesu berrikuntza sektoreka aztertzen badugu, ikusiko dugu industriak sendo eusten diola prozesu berrikuntzak enpresan bertan gauzatzearen aldeko apustuari (%51,6) eta era berean hazi egin dela enpresako beste establezimendu batzuekin egiten den lankidetzaren. Eraikuntzan, prozesu berrien garapena gehienbat enpresan bertan gauzatu da (%43,3) eta zerbitzuen sektorean, berriz, beste enpresa edo erakunde batzuetara kanporatzea da gehien erabiltzen den aukera.

100 langile baino gehiagoko enpresak dira establezimenduan bertan prozesu berrikuntza gehien burutzen dutenak (%30,2). Era berean, 20 eta 49 langile bitarteko enpresak dira beste enpresa batzuekin gehien kolaboratzen dutenak prozesu berrikuntzak sartzeko (%31,7) eta enpresa txikiak, berriz, nahiago dute prozesu berrikuntzak beste enpresa edo erakunde batzuetan garatzea.

Dos tercios (65,5%) de las empresas industriales de 10 ó más empleados desarrollan en 2006-2008 internamente las innovaciones de productos o servicios. Dicho porcentaje aumenta 1,6 puntos porcentuales con respecto al año anterior. En el sector de servicios, aunque también tiene un destacado peso específico el desarrollo de nuevos productos en el propio establecimiento (31,1%), predomina, y además con un porcentaje superior a 2007, la cooperación con otras empresas (33,7%). En el sector de la construcción el desarrollo de nuevos productos de lleva a cabo en el propio establecimiento.

Las empresas de 20 a 49 trabajadores son las que más innovación de producto realizan en su establecimiento (52,9%). Las empresas de menor tamaño (de 10 a 19 empleados) son las más utilizan recursos externos (otras empresas o instituciones) para innovar en producto (22,4%), y las empresas más grandes son las que menos cooperan con otras empresas para innovar en producto (18,3%).

## ¿Quién ha desarrollado estos procesos?


En este caso, tres opciones (en el propio establecimiento, en otras empresas o instituciones y en cooperación con otras empresas) presentan porcentajes muy similares, en el entorno del 28-29%. Esta situación supone un importante cambio con respecto a los resultados de 2007, cuando un 41,3% de las empresas desarrollaba los procesos optando por la primera alternativa.

Si analizamos la innovación de proceso por sectores observamos una confirmación de que la industria continúa apostando por llevar a cabo las innovaciones de proceso en la propia empresa (51,6%), aumentado también la cooperación con otros establecimientos de la propia empresa. En la construcción el desarrollo de nuevos procesos se ha llevado de manera mayoritaria en la propia empresa (43,3%), mientras que en el sector de servicios la opción mayoritaria es la externalización en otras empresas o instituciones.

Las empresas de más de 100 empleados son las que más innovaciones de proceso realizan en el propio establecimiento (30,2%). Al mismo tiempo, las empresas con plantilla entre 20 y 49 trabajadores son las que más cooperan con otras empresas para introducir innovaciones en los procesos (31,7%), mientras que las empresas más pequeñas son las que más optan por desarrollar las innovaciones de procesos en otras empresas o instituciones.

### NORK GARATZEN DITU BERRIKUNTZAK?

PROZESUA  
PROCESO  
PRODUKTUA  
PRODUCTO



### ¿QUIÉN DESARROLLA LAS INNOVACIONES?

# Teknologi

berrikuntza mota

Bizkaiko enpresek berrikuntza gehiago sortzen dute prozesuan (%26,4) produktuan (%13,7) baino.

Bizkaiko ekoizpen sektore guztiek (10 langile edo gehiagoko enpresen kasuan) joera nagusiari jarraitzen diote, izan ere, denek sortzen dute berrikuntza gehiago prozesuan produktuan baino. Produktu berrikuntzaren portzentaje handiena industrian gauzatzen dena da eta tasa hori nahiko orekatua da prozesuan egiten den berrikuntzarekiko (%18,8 eta %25,5 hurrenez hurren). Zerbitzuen sektorea da prozesu berrikuntza gehien gauzatzen dituen, %29,6 hain zuzen. Eraikuntzaren sektorearen kasuan, prozesu berrikuntzak %13koak dira eta produktukoak berriz %2,8ra soilik iristen dira.

Prozesu berrikuntza enplegu maila guztietan gailentzen da, baina nabarmenagoa da 50 langile edo gehiago dituzten enpresetan.

## TEKNOLOGI BERRIKUNTZA MOTAK

# Tipo de


innovación tecnológica

Las empresas de Bizkaia innovan significativamente más en proceso (26,4%) que en producto (13,7%).

Todos los sectores productivos de Bizkaia con 10 ó más trabajadores siguen la tónica general, innovando más en proceso que en producto. El mayor porcentaje de innovación en producto, lo lleva a cabo la industria, con una tasa además bastante equilibradas con respecto a la innovación en proceso (18,8% y 25,5%, respectivamente). El sector de servicio, con un 29,6% es el que mayor innovación en procesos lleva a cabo. En el caso del sector de la construcción, las innovaciones de proceso suponen un 13%, mientras que las de producto únicamente alcanzan un 2,8%.

La innovación de proceso predomina para todos los estratos de empleo, si bien, de manera más acusada en las empresas con plantilla de 50 o más personas.

## TIPO DE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



# Produktu berrien

eragin ekonomikoa enpresarentzat

2006-2008 aldian merkaturatu diren enpresarako produktu edo zerbitzu berriei dagokie 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen negozio-zifraren %26,3. Portzentaje hori 2005-2007 aldikoa baino handiagoa da (%21,4).

Berrikuntza horiek 10 langile edo gehiagoko enpresen emaitza-kontuetan daukan eragina handiagoa da eraikuntzaren sektorean (%40), industriarenean (%28,4) edota zerbitzuenean (%24,7) baino. Gainera, 2005-2007 aldiarekin alderatuta, hiru sektoreetan handitu da produktu berritzaileei esker lortutako fakturazioa.

Enpresa txikiak dira (10 eta 19 langile bitartekoak) fakturazioari dagokionean berrikuntzetatik errendimendu gehien ateratzen dutenak eta, gainera, azken urteotan haziz doa kopurua. Merkaturatutako produktu/zerbitzu berriei dagokie enpresa horietako negozio-zifraren %34,5. 100 langile baino gehiagoko enpresen iritziz, beren negozio-zifraren %25,1 merkaturatutako berrikuntzetatik dator eta portzentaje hori aurreko urteko tasa baino apur bat handiagoa da.

# Impacto económico

de los productos nuevos para la empresa

Un 26,3% de la cifra de negocio de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados es atribuible a productos/servicios nuevos para la empresa introducidos en el mercado a lo largo del período 2006-2008. Este porcentaje es superior al de 2005-2007 (21,4%).

El impacto en la cuenta de resultados de las empresas de 10 ó más empleados de estas innovaciones es superior en el sector de la construcción (40%) que en la industria (28,4%) y los servicios (24,7%). Además, en los tres sectores se produce un aumento de la facturación proveniente de productos innovadores con relación al período 2005-2007.

Son las empresas de menor tamaño (entre los 10 y los 19 trabajadores) las que más rendimiento en términos de facturación obtienen de estas innovaciones, presentando, además, una clara progresión en los últimos años. Éstas atribuyen un 34,5% de su cifra de negocio a los nuevos productos/servicios introducidos en el mercado. Las empresas con plantillas con más de 100 trabajadores consideran que un 25,1% de su negocio se deriva de las innovaciones introducidas, un porcentaje ligeramente superior la tasa de un año antes.

# Berrikuntza


eragozten duten faktoreak

2008. urtean, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %64,5k eragozpenen bat aurkitu du bere berrikuntza jardueran, hots, 2007an baino 4,2 puntu gehiago.

Sektoreka eginiko analisian, 10 langile edo gehiagoko industri enpresak dira zailtasun gehien dituztenak (%76,4), bereziki finantzaketa iturri faltagatik edota arrisku ekonomiko handiegiengatik. Enplegu mailari erreparatuz gero, zailtasun handienak (%69,7) 50 eta 99 langile bitarteko enpresek izan ohi dituzte. Baina aipatzekoa da enpresa txikienetan izan ezik (non asko hazi baitira zailtasunak), gainerako kolektiboetan murriztu egin direla oztupoak.

## BERRIKUNTZA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK

2008  
2007



# Produktu berrien

eragin ekonomikoa merkatuarentzat

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresetan 2008. urteko negozio-zifraren % 10,9 produktu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak sartzearen ondoriozkoa da (establezimenduarentzat ez ezik, bere merkatuarentzat ere berriak). Kopuru hau aurreko urtekoa baino (2007) 1,6 puntu handiagoa da.

10 langile edo gehiagoko zerbitzuen sektoreko enpresak dira produktu berriak merkaturatzeagatik fakturazio portzentaje handiena dutenak (%11,9koa) eta egoera, beraz, iazkoa baino apur bat hobea da. Industriaren sektorea batez bestekoaren azpitik kokatzen da (%9,9).

Enpresak tamainaren arabera aztertuz gero, ageri da 100 langile baino gehiagoko enpresek eta 20 eta 49 langile bitartekoek lortu dutela 2008. urteko negozio-zifraren portzentaje handiena merkaturako produktu berriei esker.

# Factores que

dificultan la innovación

Un 64,5% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha encontrado en 2008 algún tipo de dificultad en su actividad de innovación, un porcentaje 4,2 puntos superior al del año 2007.

En el análisis sectorial, las industrias de 10 ó más trabajadores son las que más dificultades encuentran (76,4%), especialmente originadas por la falta de fuentes de financiación y los excesivos riesgos económicos. Por estrato de empleo, las mayores dificultades (69,7%) las encuentran las empresas con plantilla comprendida entre los 50 y los 99 trabajadores. Pero la nota a destacar es que, salvo en las empresas más pequeñas en las que se produce un importante incremento de las dificultades, el resto de colectivos muestran disminuciones.

## FACTORES QUE DIFICULTAN LA INNOVACIÓN

# Impacto económico

de los productos nuevos para el mercado

Un 10,9% de la cifra de negocio de 2008 de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados ha venido originado por la introducción de productos o servicios nuevos o sensiblemente mejorados (no sólo nuevos para su establecimiento, sino también para el mercado en el que operan). Dicha cifra es superior en 1,6 puntos a la equivalente de un año antes (2007).

Las empresas del sector de servicios de 10 ó más empleados son las que presentan un mayor porcentaje de facturación por la introducción de nuevos productos para el mercado, con un 11,9%, una situación algo mejor a la de un año antes. Ya por debajo de la media se sitúa el sector industrial (9,9%).

En el análisis en función del tamaño de la empresa, se puede observar que las empresas con más de 100 trabajadores y las de 20 a 49 trabajadores siguen siendo las que presentan mayor porcentaje de la cifra de negocio de 2008 atribuible a productos novedosos para el mercado.

# Teknologi

berrikuntzarako batez besteko gastua

Berrikuntzak sortzen dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresek barneko I+G jardueretarako erabiltzen dute baliabide gehien, eta horren ondoren makineria eskuratzeko. Aipatu lehen jarduera horretan eginiko batez besteko gastua %8 hazi zen 2008an eta bigarreanean, berriz, -%6,7 murriztu zen. Hazkunde nabarmenena izan duen jarduera kanpoko I+G izan da, %18,1 hazi baita 2007ko kopuruarekin alderatuta.

Industri enpresak dira makineria eskuratzeko baliabide gehien bideratzen dituztenak, alde handiarekin, nahiz eta sektore horretan ere barneko I+G den nagusi. Zerbitzu enpresek, ordea, barneko I+G jardueran kontzentratzen dituzte ia baliabide guztiak. Oro har, eraikuntzako enpresek, beste sektoreekin alderatuta, baliabide gutxi bideratzen dituzte berrikuntza teknologikora.

Enplegu mailaren araberako azterketa bat eginez gero, tainaren eta baliabideen logika dela eta, ageri da 100 langile eta gehiago dituzten enpresen batez besteko inbertsioa askoz ere handiagoa dela gainerako segmentuetan baino.

Teknologi berrikuntzarako batez besteko gastua jarduera adarraren arabera

# Gasto medio

para la innovación tecnológica

La I+D interna es la actividad a la que dedican más recursos las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia que innovan, seguida de la adquisición de maquinaria. El gasto medio de la primera de ellas se incrementa en 2008 en un 8,6%, mientras que la segunda disminuye en un -6,7%. El crecimiento más llamativo tiene lugar en la I+D externa ya que aumenta un 18,1% con relación a la cifra de 2007.

Las empresas industriales son, con diferencia, las que más recursos dedican a la adquisición de maquinaria, aunque la opción preferente es la I+D interna. Las empresas de servicios, sin embargo, concentran sus recursos prácticamente en su totalidad en la I+D interna. En general, las empresas constructoras dedican pocos recursos, en comparación con los otros sectores, a la Innovación tecnológica

En un análisis por estrato de empleo se puede observar que, por lógica de dimensión y disponibilidad de recursos, las empresas con plantilla superior a 100 empleados, muestran una inversión media significativamente superior a la del resto de segmentos.

Gasto medio para la innovación tecnológica por rama de actividad

	Guztira Total		Industria Industria		Eraikuntza Construcción		Zerbitzuak Servicios	
euro	2008	2007	2008	2007	2008	2007	2008	2007
Barneko I+G I+D Interna	85.214	78.460	116.463	94.637	4.382	393	91.246	89.540
Kanpoko I+G I+D Externa	19.024	16.104	55.332	43.320	8.907	8.461	8.120	7.052
Makineria eskuratzeko Adquisición de Maquinaria	24.933	26.733	71.175	78.857	2.575	2.729	13.070	11.494
Kanpoko beste jakintza batzuk (1) Otros conocimientos externos (1)	3.298	5.671	7.279	15.811	165	145	2.535	2.898
Pertsonal berritzailearen prestakuntza Formación al personal innovador	1.469	1.347	1.973	2.238	408	374	1.514	1.212
Produktu berritzaileak merkaturatzea (2) Comercialización de productos innovadores (2)	4.317	4.343	5.774	8.979	0	20	4.715	3.477
Berrikuntzak inplementatzeko diseinua eta prestaketak Diseño y preparativos para la implementación de innovaciones	3.451	4.227	3.309	8.620	0	880	4.240	3.239

(1) patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea  
(2) berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak

(1) compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.  
(2) actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones

# Berrikuntzaren

finantzio publikoa

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %45,3k laguntza finantzario publikoa jaso du 2008an, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2007. urtekoa baino 5 puntu txikiagoa da. Finantzaketa hori gehienbat Eusko Jaurlaritzak emandakoa da (%32,8).

Industria sektorearen portzentajeak (%58,1) Bizkaiko batez bestekoa gainditzen du eta zerbitzuen sektorekoa, berriz, apur bat beherago kokatzen da (%43). Gutxien berritzen duena izaki, eraikuntza sektorea izan da laguntza finantzario publiko gutxien lortu duena bere berrikuntza jardueretarako.

Inkestako datuek adierazten dutenez, zenbat eta handiagoa izan enpresa orduan eta finantzaketa publiko gehiago jasotzen du; enpresa txikienek %40,9 jasotzen dute eta handienek berriz %53,2.

# Financiación

pública de la innovación

Un 45,3% de las empresas de Bizkaia que hacen innovación y de 10 ó más empleados recibe apoyo financiero público para sus actividades de innovación en 2008, ya sea en forma de préstamos o subvenciones, dicho porcentaje se sitúa 5 puntos por debajo de su equivalente en 2007. La mayor parte de dicha financiación proviene del Gobierno Vasco (32,8%).

La industria (58,1%) presenta un porcentaje que superan la media del conjunto de Bizkaia, mientras que el sector de servicios se sitúa en un valor ligeramente inferior (43%). Por el contrario, el sector de la Construcción, el menos activo en materia de innovación, es el que menos financiación pública ha conseguido para sus actividades de innovación.

Los datos de la encuesta señalan que a mayor tamaño de empresa más financiación pública, pasando desde un 40,9% para las empresas más pequeñas a un 53,2% para las más grandes.



# Lankidetza

hitzaizenak dituzten establezimenduak

Bizkaian 10 enplegatu edo gehiago dituzten eta berrikuntzak sortzen dituzten enpresen %24,6k I+G jardueren inguruko lankidetza hitzaizenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin 2006-2008 aldian. Portzentaje hori 2005-2007 aldikoa baino 0,7 puntu txikiagoa da.


# Establecimientos

con acuerdos de cooperación

Un 24,6% de las empresas de 10 ó más empleados de Bizkaia que innova ha firmado acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación con otras empresas o Instituciones en el horizonte temporal 2006-2008. Dicho porcentaje se sitúa 0,7 puntos por debajo del correspondiente período 2005-2007.

## LANKIDETZA HITZARMENAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK

## ESTABLECIMIENTOS CON ACUERDOS DE COOPERACIÓN



Industri enpresek (%31,9) lankidetza hitzaizen gehiago izenpetzen dituzte zerbitzu enpresek baino (%24,2).

Enplegu mailari erreparatuz gero, lankidetza hitzaizen kopurua enpresen tamainaren arabera izaten da. Hartara, enpresarik handienetan (100 langile baino gehiagokoetan) I+G eta berrikuntza jardueren inguruko lankidetza hitzaizenak %46,2 dira; portzentaje hori %20raino jaisten da enpresa ertainetan eta %24,7raino txikienetan.

Las empresas industriales (31,9%) suscriben más acuerdos de cooperación que las de servicios (24,2%).

En el análisis por estrato de empleo, el número de acuerdos de cooperación tiene una cierta correlación positiva con el tamaño de las empresas. Así, un 46,2% de las empresas más grandes (con más de 100 trabajadores) y que innova, suscribe acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación, porcentaje que va disminuyendo hasta el 20% para las empresas de tamaño intermedio o el 24,7% para las empresas más pequeñas.

# Patenteak eta bestelako babes metodoak

2006-2008 aldian, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %25,2k patenteren bat eskatu du, patenteren bat indarrean zuen edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoen bat erabili du. Ehuneko hori 2007koa baino 1,4 puntu handiagoa da.

Eraikuntzaren eta zerbitzuen sektoreetako 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresetan nabarmen hazi da patenteen eta berrikuntzak babesteko bestelako metodoen erabilpena, industriaren sektorean, aldiz, murriztu egin da. Dena den, industriaren sektorea da (%31,9) horrelako jarduera gehien egiten dituen eta eraikuntzarena, berriz, gutxien egiten dituen (%22,5).


# Patentes y otros métodos de protección

En el período 2006-2008, un 25,2% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha solicitado alguna patente, tenía alguna patente en vigor o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones. Este porcentaje es 1,4 puntos porcentuales superior a la tasa correspondiente al 2007.

Las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores de los sectores de la construcción y los servicios aumentan de un modo importante el uso de patentes y otros métodos de protección de sus innovaciones, mientras que la misma se reduce para el sector industrial. No obstante, el sector industrial, con un 31,9%, es el sector que lleva a cabo un mayor número de estas actividades, y el sector de la construcción es el que menos (22,5%).

## PATENTEEN ETA BESTELAKO BABES METODOEN ERABILERA

## USO DE PATENTES Y OTROS MÉTODOS DE PROTECCIÓN



Enpresa handienen (100 langile edo gehiagokoak) %41ek patenteren bat eskatu dute 2006-2008 aldian, patenteren bat indarrean zuten 2008. urtearen amaieran edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoen bat erabili dute aldi horretan. Oro har, enpresen tamaina murrizten joan ahala, horrelako babes metodoen erabilpena ere murrizten doa, baina ikus liteke enpresa txikiak ertainak baino sentsibilizatuago daudela gai honekin.

Un 41% de las empresas de mayor tamaño (más de 100 trabajadores) ha solicitado alguna patente en el período 2006-2008, tenían alguna patente en vigor a finales de 2008 o han hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones en ese período. En líneas generales, según se va reduciendo el tamaño de las empresas los porcentajes de utilización de este tipo de métodos de protección también se reducen, aunque se puede apreciar que las empresas más pequeñas se encuentran más sensibilizadas en este tema que las medianas.

# Beste aldaketa

batzuk estrategian eta antolakuntzan

Produktu (ondasun zein zerbitzu) eta prozesu berrikuntzak ez ezik, enpresek bestelako aldaketa eta hobekuntza batzuk ere egin ditzakete estrategian eta antolakuntzan. 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %28,4k horrelako aldaketaren bat egin dute 2006-2008 aldian. Ehuneko hori 2005-2007 aldikoa baino 5,8 puntu handiagoa da.

Sektoreka, 2006 eta 2008 artean estrategian edo antolakuntzan aldaketak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko industriak %21 dira. Ehuneko hori 2005-2007 aldikoa baino 3,3 puntu baxuagoa da. %14k aldaketak egin dituzte antolakuntzan eta %12,2k berriz nahiago izan dute aldaketa nabarmenak egin produkturen baten itxura estetikoan edota diseinuan.

# Otros cambios


estratégicos y organizativos

Las empresas, además de las innovaciones en productos (bienes y servicios) y procesos, pueden haber realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas. Un 28,4% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores ha realizado alguno de estos cambios en el período 2006-2008, y dicha tasa ha mejorado en 5,8 puntos con respecto al período 2005-2007.

En el plano sectorial las industrias de 10 ó más trabajadores que han llevado a cabo cambios estratégicos u organizativos entre los años 2006 y 2008 alcanzan un porcentaje del 21%. Esta tasa es inferior en 3,3 puntos a la correspondiente al período 2005-2007. Un 14% ha llevado a cabo cambios organizativos y un 12,2% ha optado por cambios significativos en la apariencia estética o en el diseño de alguno de sus productos..

## BESTE ALDAKETA BATZUK ESTRATEGIAN ETA ANTOLAKUNTZAN

## OTROS CAMBIOS ESTRATÉGICOS Y ORGANIZATIVOS



Eraikuntzaren sektorea da horrelako aldaketa gutxien aplikatu dituen, baina iaiz baino gehiago izan dira edonola ere. Horrela bada, 2005-2007an %14,1 ziren eta 2006-2008an, berriz, %21,5. Zerbitzuei dagokionean, esan behar da estrategian edo antolakuntzan aldaketa gehien egiten dituen sektorea dela (%32,5) eta, gainera, portzentaje hori 8,3 puntu hazi da 2007koarekiko.

Enplegu mailaren arabera aztertuz gero, ageri da, beste aldagai batzuekin gertatzen den bezala, horrelako estrategiak abiarazteak nolabaiteko lotura duela enpresen tamainarekin. Kasu honetan, enpresa handienak dira mota horretako aldaketa gehien egin dituztenak (%46,3) eta atzetik doaz 50 eta 99 langile bitartekoak (%38,5). Gainerako enpresak portzentaje horietatik oso urrun geratzen dira oraindik.

El sector de la construcción es el que menos ha aplicado este tipo de cambios pero los ha aumentado. Así, se ha pasado de un 14,1% en 2005-2007 un 21,5% en 2006-2008. Por lo que se refiere al sector de servicios, es el que pone en práctica en mayor medida cambios estratégicos y organizativos (32,5%), mostrando además un incremento en 8,3 puntos con respecto a 2007.

El análisis por estrato de empleo muestra que, al igual que sucede con otras variables, la puesta en práctica de este tipo de estrategias viene ligada, en cierto modo, al tamaño de las empresas. En este caso, son las empresas con mayor dimensión las que más han aplicado este tipo de cambios (46,3%), seguidas por las de 50 a 99 trabajadores (38,5%). El resto de empresas se sitúa en porcentajes notablemente más alejados.

barrixe.com



### “Laguntzak eta diru-laguntzak”

*Barrixe-n aurkituko duzu indarrean dauden eta zure berrikuntza proiektuetarako baliu ditzakezun laguntza eta diru-laguntzei buruzko informazio guztia.*

### “Ayudas y subvenciones”

toda la información sobre ayudas y subvenciones en vigor para sus proyectos de Innovación disponibles en barrixe.

### Joerak

*zure enpresa zuzentzeko, oso garrantzitsua da jakitea norantz doan merkatua eta zer eskatzen duen gizarteak.*

### Tendencias

conocer hacia dónde se dirige el mercado y qué demanda la sociedad es clave para dirigir su empresa

**informazio gehiago:**  
**Más información:**


[www.feriadelconocimiento.org](http://www.feriadelconocimiento.org)

### Innocámaras foroa

*Bilboko Ganberak abian jarri duen Foro honen helburua da euskal enpresei azaltzea lankidetzaren enpresen berrikuntza-estrategia bat dela.*

### Foro Innocámaras

La Cámara de Bilbao lanza este Foro con el objetivo de proporcionar a las empresas vascas una serie de reflexiones sobre la cooperación como una de las estrategias de innovación en las empresas.



### Ezagutzaren Azoka plataforma.

*Merkataritza Ganberak eskaintzen duten zerbitzu berri honen helburua da hornitzaileen eta eskatzaileen arteko eskaintzak eta eskaerak lotzea eta baita ere ezagutza-transferentziari buruzko laguntza eta aholkularitza eskaintzea.*

### Plataforma Feria del Conocimiento

Un nuevo servicio de las Cámaras de Comercio destinada a casar ofertas y demandas entre proveedores y demandantes, complementado con la prestación de servicios de apoyo y asesoramiento sobre transferencia.



**informazio gehiago:**  
**Más información:**

[www.camarabilbao.com](http://www.camarabilbao.com)



[beaz.bizkaia.net](http://beaz.bizkaia.net)



[www.bizkaia.net](http://www.bizkaia.net)



[www.camarabilbao.com](http://www.camarabilbao.com)

